



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ANDRAMAIXETAKO X. LABURMETRAI LEHIAKETA

OINARRIAK

- 1.- Gaia: "GEZURRA".
- 2.- Lanen iraupena: Gehienez 12 minutukoak izan beharko dute eta formatu digitalean eginda egon beharko dute: DVD, CD edo edozein ordenagailu arruntek irakurriko duen formatuan. 12 minututik gorako lanak, lehiaketatik kanpo geratuko dira.
- 3.- Hizkuntza: euskara.
- 4.- Lehiaketan 16 urtetik gorakoek har dezake parte.
- 5.- Lanak, originalak eta inon saritu gabekoak izan beharko dute.
- 6.- Izen emateko epea **ekainaren 27tik uztailaren 8ra**.
Lanak aurkezteko azken eguna: **abuztuak 8**.
- 7.- Lanak aurkezteko tokia: Azkoitiko Udaletxeko kultura saila.
- 8.- Sariak:
 - Lehenengo saria: 300 euro eta oroigarria.
 - Ikuslearen saria: 300 euro eta oroigarria.
- * ***Oharra: Lehenengo saria lortzen duenak, ezingo du ikuslearen saria jaso.***
- 9.- Izen emate ondoren, lan asko aurkeztuz gero, parte hartzaileekin bilera bat antolatuko da ze neurri hartu erabakitzeko.
- 10.- 4 laburmetraia baino gutxiago aurkezten badira ez da lehiaketarik izango. Gutxieneko kalitatea bermatzen duten guztiak 125 euroko dieta izango dute.
- 11.- Herritar baten irudia erabili, imitatu, edo aipamen zuzena egitekotan, eragiten dion herritarrari onespina eskatu beharko zaio.
- 12.- Gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna eta herritarren aniztasuna errespetatzen ez dituzten lanak ez dira onartuko.
- 13.- Laburmetraia proiektzioa, abuztuaren 15ean, gaueko 22:30ean Herriko plazan, egingo da. Lehenengo saria epaimahaiak erabakiko du eta bigarrena, herritarrek.